

EKONOMIA KOMUNITARIOA

AHAL DUZUNA EMAN, BEHAR DUZUNA HARTU

Paso Viejo komunitatea nekazal mugimendua indartzeko helburuz sortu zen Argentinan. Bide horretan eratu zen kideen arteko harremana. Nekazal feminismoa lantzeaz gain, eguneroko bizitza hori barru-barrutik ezagutu du Esti Redondo kazetariak.

 ESTI REDONDO



OPOR KOMUNITARIOAK. Hainbat nekazal mugimenduren parte den Paso Viejoko komunitate argentinarr txikiak zaintza eta formazioa ditu oinarri.

Paso Viejo Argentinako Córdoba probintziako ipar mendebaldean dagoen herri txikia da. Duela hoge urte zonalde hartan ez zegoen herri antolakuntzarik, Estatua ez zen haraino heltzen eta asko jota elizaren

ekimen asistentzialistek betetzen zituzten herritarren beharrak. Orduan, gazte lizentziatu berri batzuk heldu ziren, irrati komunitario proiektuen eta agromodo modura egindako lanen abarora, eta bertakoekin harremanetan hasi zi-

ren. Militantzia urbanoetatik zetozen, eta asko 70eko hamarkadan desagerrarazitako borrokalarien familietan hazitakoak ziren.

Zerbait egitekotan, bertan bizi behar zirela erabaki zuten eta Etxe Handia

deiturikoa alokatu zuten. Horrela sortu zen, ia nahi gabe, Paso Viejo komunitatea. Baina helburua ez zen komunitate bat sortzea, helburua antolakuntza politikoa zen, nekazal mugimendua indartzea.

Hogei urte geroago, APENOC Córdobako Ipar Mendebaldeko Ekoizleen Elkarteak ondo ezaguna da, lurraren eta uraren defentsan aritzeagatik. Córdoban nekazal mugimendurik ez zegoenean sortu zen eta bidea ireki zien beste batzuei. Gainera, hainbat mugimendu zabalagoren partaide ere bada, tartean Somos Tierra nekazal indigenena eta La Vía Campesinakoak. Komunitate honen historia beraz, mugimenduaren historiarekin batera ulertu behar dugu.

Gaur egun 27 pertsonak osatzen dute komunitatea; jendarte berri baten esperientzia da, “prefiguratioa” adituek esango luketen modura. Eta badu erakusteko zerbait, umiltasunetik, garaile ateratzen direlako egunero. Horren adierazgarri dira elkar zenbat maite duten eta kanpotik heltzen den jendea zaintzeko nolako lanak hartzen dituzten.

FUNTS KOMUNA

Paso Viejora heltzerakoan bakoitzak zeukan diru apurra batu eta lehenengo hilabetetako alokairua ordaindu zuten. Elkarrekin bizitzeak gastuak arindu zituen eta langabe zeuden militanteei aukera eman zien mugimenduan aritzeko: oreka bat bilatzen saiatu ziren, denbora gutxi eskatzen zuten lanak topatu gainerako denbora guztia mugimenduan inbertitzeko. Kontraesanak, eztabaidak eta gaizki ulertuak egon dira noski, eta baita erabaki gogorak hartu beharra ere.

Funts komunean aurreztutako diruarekin hiru hektarea lur erosi zituzten eta etxeak eraikiz joan dira. Momentu honetan bost etxe, saloi komunitarioa eta bulegoa dituzte. “Bakoitzak ahal duena ematen du eta behar duen heinean hartzen du”, hori izan da erabilitako filosofia; Carlos Julio Sánchezen hitzetan, “honek bakarrik funtzionatu izan du konfiantza neurtezina diogulako elkarri”.

ELKAR ZAINTEA ETA FORMAZIOA

Askatasun handiko komunitatea da Paso Viejokoa, eta parte hartzeko aukerak etengabe garatu dituzte, horrek markatu du bidea Cecilia Suauren esanetan:

Paso Viejotik, nire esperientzia



ANDREAREN ALGARROBOA. “Nik ere egin dut negar bere oinean”, azaldu du Esti Redondok kronika honetan.

2006an ezagutu nuen Paso Viejo. Etxe Handian igaro nituen lehenengo egun horietan Andrea Sánchezek eman zidan ongietorria, eta harreman militantea eta pertsonala eraiki genuen elkarrekin. Askotan bisitatu eta lagundu izan ditut lanean: lur okupatueta etxe bat eraiki, eskolaren eraikuntzan parte hartu, olibondoak landatzeko zuloak egin, esne dultzea egiten ikasi, egoitzarako sukaldaria eta labea egin... Eta, nola ez, eztabaidak, elkarriketak eta barre ugari elkar-trukatu ditugu mateak hartuz, edota fernetak dastatuz.

Andrea gaixo zegoenean ere hemen egon nintzen, samina nirea ere izan zen hil zenean. Hil ondoren bueltatu nahi izan nuen, urrutitik zaila zaigun agurra bertatik egiteko. Nik ere egin dut negar algarroboren oinean. Hara itzuli izan naiz bidaia “erosoak” behar nituenean, nire krisiei aurre egin behar izan diedanean. Hemen harreman osasuntsuak eta ateak zabalik topatu izan ditut beti.

Beraz, aurten ere, martxoan Argentinara etorri nintzen Paso Viejo eta APENOC bisitatzeko, eta plan handiak egin genituen, nekazal feminismoa lantzen ari diren garaietan, distantziatik bazen ere nola lagundu

nezakeen pentsatuz. Berrogeialdiak Buenos Airesen harrapatu nindue-nean, Paso Viejora heltzeko ahalegin guztiak egin zituzten –makinaria konplikatua mugitu behar izan genuen– eta geroztik hemen bizi naiz, saloi komunitarioan, niretzat prestatu duten logelan.

Goizetan batzuk hemen egiten dute lan eta beraiekin mugimenduari buruz hitz egiten dut, beste batzuk bazkaltzera datoz eta bizitzari buruz aritzen gara, arratsaldetan ziber-ikastaroak jaso eta ematen nabil, eta asteen bizpahiru aldiz norbaiten etxean afaltzen dut ardo batzuen bueltan. Etxebizitza eskaintzeaz gain, nire behar guztiak ase dituzte –edozein militanteri etxea eta elikadura eskaini behar zaiolako, Ceciren esanetan–, baina laguntasuna, elkartasuna eta goxotasuna ere eman didate.

Momentu honetan, nekazal feminismoaren harira komunikazio feministarako eta jendaurrean berba egiteko ikastaroak ematen ditut. Ekonomia partekatu horren parte ere banaiz, nire diru sarrera urriak, erreportaje honetatik etorritakoak barne, komunitatearen funtsera doaz.

“Bakoitzaren erritmoak eta autonomia oso ondo errespetatu ditugu, horregatik jarraitzen dugu elkarrekin, egunero erabakitzen dugulako”.

Bikote krisiak eta harreman berriak sortu dira, zenbaitek haurrak ere izan dituzte eta haien zaintza eta heziketa izan dira komunitatearen egitekoetako bat. “Nik nonbaitera joan behar badut edo zerbait egin behar badut, norbaiti esaten diot umeei egoteko eta badakit ondo egongo direla”, dio Camila Recalde. Bestetik, formazioa ere bultzatu dute: unibertsitateko lizentziaturak, masterrak, gustuko zaletasunak edota formazio politikoa; horrek ongizatea ekarri dio komunitate osoari, baita mugimenduari ere.

Komunitatean badaude psikologoak, langile sozialak, ingeniari agronomoak, abokatuak, albaitariak, medikuak, mazzkilariak edota irakasleak. Batzuek ogibidea aldatu dute: apaiza izandakoa orain margolaria da, ingeniaria izandakoa irakasle... Eta, nola edo hala, guztiek elikagaiak ekoizten dituzte: lursailean ortu txikiak daude, fruta-arbolak, oiloak eta oilaskoak, eta laster galeperak.

ANDREAREN HERIOTZA

Oroimen kolektiboan momentu eta prozesu garrantzitsuak gordetzen dituzte: lehenengo lur okupazioak eta istiluak, Mauricio Macriren garaipenak ekarritako krisia... Beste batzuk eguneroko bizitzarekin lotuta daude, “lan komunitarioak ekarri digun indarra etxeak erakitzean edo lurra lantzean, hori da niretzat gehien markatu gaituen zerbait”, dio Sánchezek.

Baina bada momentu bat guztiek aipatu izan dutena: 2008an, Andrea Sánchez, komunitateko sortzaileetako bat, minbiziaz gaixotu zen haurdun zegoela. 2010ean hil zen, Buenos Airesen ingesatuta. Errauntsak komunitatean daude, algarroba baten sustraian eta, Ruben Santillánnek dioenez “triste gaudenean Andrearen zuhaizpean esertzen gara, ez dakigu zergatik, inkontzientea da, baina konturatzen garenerako hantxe gaude, berarekin”.

Arraroa da egun oso bat berari buruz hitz egin gabe pasatzea, oso presente dago familietan, proiektuetan, oroitzapenean. Eta oso presente nekazal mugimenduan ere: komunitate, eskola eta egoitzetan, Andrea hor dago. Bere inda-

Komunitatea
jendarte berri baten
esperimentua da,
“prefiguratiboa” adituek
esango luketen
modura. Eta badu
erakusteko zerbat,
umiltasunetik, garaile
ateratzen direlako
egunero

rra eta laguntasuna dute gogoan: “Nekazal eskola osatzen ari ginen eta utzi gintuenean nahiko bakarrik geratu nintzen proiektu honetan, baina gaur egun eskola ederra da”, dio Suauk.

ELKARREKIN JARRAITZEKO ESTRATEGIAK

Esperientzia honetan elkarrekin jarraitzeko hainbat erreminta erabili dituzte, askotan instintiboki. Adibidez, jaiak, ospakizunak eta antzeko momentu informalak komunitatea lotuta mantentzeko estrategia dira.

Baina zalantza gabe, komunitateak elkarrekin jarraitzen badu komunikazioari esker da. Hasieratik den-dena hitz egiten da, eta diotenez, horixe da nekazal mugimenduari egin dioten ekarpen garrantzitsuena: edozer hitz egin daiteke, eta krisiei apurka egiten diete aurre, ez dago presarik, behar duten denbora hartuko dute horretarako. Hamabost egunean behin bilerak egiten dituzte mugimenduko kontuez, militantziako lanez, egunerokotasunaz... “Eztabaida gogorrak daude, baina oihurik gabe, horrek asko laguntzen du”, dio Gimena Baigorrik.

Elkarrekin jarraitzeko beste bide bat atek zabalik izatea izan da: kanpokoei iritzia eta laguntza eskatu, ideiei berriak entzun eta kide berriak besarkatu.

Komunitate honetan argi dute zertarako elkartzu ziren eta zertarako jarraitzen duten elkarrekin: nekazal mugimenduari indarra emateko eta nekazarekin jendarte berri baten alde borrokatzeko. “Batzuetan desesperatzen gara ez ditugulako erremintak aurkitzen –dio Mauricio Murchuttik–, baina atzera egingo banu, berriro ere abentura honetan sartuko nintzateke”. ●



EMAKUME NEKAZARIAK. Emakume Nekazarien Nazioarteko Eguna ospatzeko eta Andrea Sánchez oroitzeko horma-irudia margotu zuten Paso Viejon.